

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

562

*AGINDUA, 2019ko urtarrilaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko urriaren 30eko Aginduaren babesean aurkeztutako diru-laguntza eskabideen ebazpena. Agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2018ko diru-laguntzetarako.*

Ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 9ko EHAA, 128. zk.; haren huts-zuzenketa: 2015eko irailaren 8ko EHAA, 170. zk.) arautzen du Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua. Dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara emango da urteko deialdiaren ebazpena.

Horri jarraikiz, honako hau

### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Jendurrean jartzea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko urriaren 30eko Aginduaren babesean onuradun diren erakunde eskatzaileak, lortu duten balorazioa eta erakunde bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa (agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2018ko diru-laguntzetarako). Datu horiek guztiak eranskinean jasota daude.

2. artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 28a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2019ko otsailaren 1a, ostirala

## ERANSKINA

| Eskatzailea                                       | Puntuak | Esleitutako diru-laguntza |
|---|---------|---------------------------|
| Ramón Rubial Fundazioa                            | 48,43   | 68.539                    |
| Sabino Arana Fundazioa                            | 84,93   | 153.983                   |
| Iratzar Fundazioa                                 | 68,53   | 46.481                    |
| Alkartasuna Fundazioa                             | 50,80   | 3.054                     |
| Instituto 25 de Mayo para la Democracia Fundazioa | 60,34   | 10.443                    |
| Guztira   |         | 282.500                   |